

BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

4541

EBAZPENA, 2018ko irailaren 6koa, Turismo eta Merkataritzako sailburuordearena, zeinaren bidez izendatzen baita 2018. urteko merkataritza-banaketa kudeatzeko teknikariak prestatzeko beken deialdian aurkeztu diren eskaerak ebaluatzeko eta ebazpen-proposamena egiteko hautaketa-batzordea.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2018ko uztailaren 3ko Aginduaren 9. artikuluko 3. apartatuan ezarritako eskuduntzak direla bide, eta 2018. urteko merkataritza-banaketa kudeatzeko teknikariak prestatzeko beken deialdia ebatziko duen hautaketa-batzordeko kideak izendatzeari dagokionez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— 2018. urteko merkataritza-banaketa kudeatzeko teknikariak prestatzeko beken deialdian aurkeztu diren eskaerak ebaluatzeko eta ebazpen-proposamena egiteko hautaketa-batzordeko buru izendatzea Merkataritzako zuzendaria, Juan Emilio Andrades García.

Bigarrena.— Honako hauek izendatzea 2018. urteko merkataritza-banaketa kudeatzeko teknikariak prestatzeko beken deialdian aurkeztu diren eskaerak ebaluatzeko eta ebazpen-proposamena egiteko hautaketa-batzordeko bokal:

- a) Juan Carlos Ortuondo Rocandio, Merkataritza Zuzendaritzako teknikaria.
- b) Pilar Zorrilla Calvo, EHUren ordezkari (beken programan sailari laguntzen dion erakundea)
- c) Julia Dieguez Pérez, merkatarien elkarteen ordezkari.

Hirugarrena.— 2018. urteko merkataritza-banaketa kudeatzeko teknikariak prestatzeko beken deialdian aurkeztu diren eskaerak ebaluatzeko eta ebazpen-proposamena egiteko hautaketa-batzordeko idazkari izendatzea Merkataritza Zuzendaritzako teknikari den Estíbaliz Martínez Ocio.

Laugarrena.— Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari. Hilabeteko epea izango du horretarako, ebazpena ofizialki argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 6a.

Turismo eta Merkataritzako sailburuordea,
ISABEL MUELA LOPEZ.